

Pertsonala izango da ala ez da izango

Arantazu Fernandez Iglesias

Axut taldearen *Amua* ikuskizunak era delikatu, umoretsu eta adimentsu batez planteatzen digu pertsonala dena baino gai politikoagorik ez dagoela. Teoria feministak elikatuta, maitasunari buruzko uste eta maneren inguruko hausnarketa oholzaratu digute ikuslearen gogamenerako. Eta gogamenerako diot, zeren, gurean, komedia generoa eta maitasun kontuak nahastan direnean, bulebarreko antzezlan zaharkitua ikusteko parada handia izaten ohi baitugu antzerkizaleok. Horregatik deritzogu gaiari emandako buelta hau publikoak biziki eskertuko duela. Gauzak horrela, *Amua* titulua baino gehiago, azpititulua nabarmendu nahi dugu lerro hauetan: haien lana «komedia sentimental politikoa» dela diote Axut-ekoek, eta bete-betean asmatu dute. Protagonisten bizitzan iraultza politikoa atzean geratu bada ere, iraultza pertsonala egiteko aukera suertatuko zaie Iratiko basoko etxola batean. Udaizkeneko asteburu bat elkarrekin pa-

KRITIKA
Antzerkia
'Amua'

Zuzendaritza: Ximun Fuchs.
Antzeleak: Maite Larburu, Manex Fuchs, Ximun Fuchs. **Musika:** Maite Larburu. **Eguna:** Apirilak 16. **Lekua:** Hernaniko Biteri Kultur Etxea.

satzeko bildu dira hiru lagun: Ane, Txolarre eta Aitor; kanpoan, oreinak arramaka, gizezkoen begiak maitasunak txolinduta, desioak txatxanduta baina... Zertaz ari gara maitasunaz aritzen garenean? Aktoreen hirukoteak primeran funtzionatzen du, konplizitatez, protagonista bakoitzaren nortasuna ondo diseinatu eta antzeztuta dagoela. Bereziki onak dira gizezkoen arteko elkarrizketa bizi eta lehiakorak. Apartekoak dira Fuchs anaien hazpegia – bakoitzak bere estiloari eutsita – zein Anaren, pertsonaia ameslarienaren, musuaren espresioa. Musika eta kantak garrantzi han-



Ximun Fuchs, Maite Larburu eta Manex Fuchs, obran. AXUT

dikoak ditugu antzezlanean; horretan, Maite Larbururen partaidetza azpimarratzekoa da. Instrumentuak taula gainean, esker eta eskuinean paraturik, eszenen arteko trantsizioak egiteko erabiltzen dituzte argi aldaketa koloretu eta nabarmenaz lagundurik. Erdiko egurrezko tramankulua efikazia handikoa da bere sinpletasunean. Atrezko gutxi baina esanahi handikoa, jantziak ere oso egokiak. Eta smakizun eder bat: barreneko horma zuria funtzio bikoitzekoa da; une oro da hor, baina hainbatetan dutxako gortina garden bat balitz bezala azaltzen da, eta besteetan, berriz, proiektzioak pantaila gisa. Azken horretan ikusitako irudiki – ederrak izateaz gain – kulturaren eta naturaren arteko bikoiztasu-

naren isla esplizitua eskaintzeaz batera, estetika garaikidearekin lerratzen digute antzezlanea. Gainera, espazio intimo eta publikoaren arteko muga bezala irakur daitekeen elementua dugu. Artefaktu teatral txiki honek bertute ugari biltzen dituelakoa nago. Gutako batzuen erradiografia izaki, 2010eko *Erraustak* gogoangarri hura akordura ekarri, eta beste sentibilitate berri baten adierazlea dugu *Amua*, aipatutako haren ifrentzua. Komedia ezaugarritzen duen endredozaz baliatuta, Axut-ek gure izaera eta pentsamenduen aldakuntzaren testigantza gozo – eta aldi berean irimo – eskaini digu, eta eskertzekoa da «pertsonala izango da ala ez da izango» dioen leloari atxikitzen zaion *Amua* hau.

Erdu Bilboko I. Haur Antzerki Jaialdia sortu dute

ANTZERKIA • Atx Teatroak Erdu Bilboko I. Haur Antzerki Jaialdia abiatu du, Otxarkoagako Ekoizpen Eszenikorako Berrikuntza Zentroarekin. Hilaren 23tik 25era egingo dute, eta Euskal Herri osoko lau obra emango dituzte: *Kotondarrak*, *Behin bazen internet*, *Etzerik txiki* eta *Kaskarrot*.



Aurtengo kartela. DOCK OF THE BAY

Dock of The Bay etorkizunaz ariko da ekainean

ZINEMA • *Dock of the Bay* Musika Dokumentalaren Donostiako jaialdiak aurtengo kartela aurkeztu du —Estudio Primok egin du—, bai eta aurtengo abiatuko duten sail berri bat aurreratu ere. Ekainean 7tik 12ra egingo da jaialdia, eta «etorkizuna berrabiarazteko» formulen inguruko gogoetek ardatzuko dute.

Eztabaidak deituko da jaialdiaren sail berria, eta Aaron Rodriguez Serranok koordinatuko du. **Zelaiz kanpo: kultura berrabiaraztea** izenpean, hainbat kritikari, programatzaile eta zinema zuzendari gonbidatuko dituzte musikaren eta zinemaren geroaz aritzera.

Zarzuela eta opera bat eginda, OLB Eren eskutik

OPERA • OLB Opera Lagunen Bilboko Elkarteak zarzuela eta opera gurutzatu, eta pandemiak kalte egin dien zortzi kantari omenduko ditu larunbatean. Euskalduna jauregian: Carmen Solis, Itziar Uña, Silvia Tro Santafé, Celso Albelo, Sergio Escobar, Moises Marin, Juan Jesus Rodriguez eta Simon Orfila.

Argia eta denbora

Agus Perez

Giro iragarle betean hasi da Sharon Fridman konpainiaren *Dosis de paraiso* (Paradisus dosiak) dantza-lana, agertoki ilunean zegoen Djak soinu-banda atmosferikoari ekiten zion bitartean. Foku horizontal gorri batek argizatzen du haren irudia, eta zortuk sakabanatuta zeuden argi-hodiak hasi dira beren hitza esaten foku gorria posizio horizontaletik zenitalera igaro denean. Ikusten denez, argiak rol indartsua jokatu du emandakian hasieran, eta piezaren garapenean ere zeregin zentral horretan jarraitu du, musika inguratzailearekin eta dantzarien eboluzioekin batera. Erraza izango zen argien erabilerarekin sormena

KRITIKA
Dantza
'Dosis de paraiso'

Konpainia: Sharon Fridman. **Koreografia eta zuzendaritza:** Sharon Fridman. **Dramaturgia-laguntzaileak:** Antonio Ramirez-Stabivo. **Musika:** Idan Shimoni, Ofer Smilansky. **Eredu eszenikoa:** Sharon Fridman, Ofer Smilansky. **Dantzariak:** Melania Olcina, Arthur Bernard Bazin. **Lekua:** Barakaldo antzokia. **Eguna:** Apirilaren 17a.

gai inditu eta gehiegizko efektismoen tentazioan jaustea, baina ez da hori izan haren diseinuaren asmoa, osotasun baten parte iza-

te baizik, eta emozioen munduan burmuinaren aldetik lagungarri izatea ere bai.

Dantzariak beraiek hodi argitsuak iluntasunean mugitu ostean hasi da bikotea elkarri berrakadak ematen eta haiek instantanra desegiten, hasiera batean geldo, baina denboragarrarean gero eta azkarrago, elkarrekiko interes falta fase baten ostean. Biak zihozten grisez jantzita, emakumea gona luzearekin eta gizona prakekin – Djak kasaka eta praka gorri distiratsua jantzi ditu –, baina eszena horren ostean beste arropa batzuk izan dituzte apaingetan, denboraren iragata irudikatuz.

Bitartean musikak eta argiak beren lana egiten jarraitu dute, pieza honen ezaugarri nabarmena izan delako elementu guztien elkarlan aberagarria. Argiak izaera estroskospiko leuna eduki du tarte batzuetan – denbora irudikatzen beste era bat – eta une batetik aurrera hasi dira foku berezi batzuk erabiltzen. Haien bi-

dez lortu den efektua izan da argia plano horizontaletan banatzea, halako moldez non gorpuzten atal batzuk baino ez baitziren ikusten – bururik gabeko enborrak, hanka bat, buruak bakkarrik... –, horrela areagotuz emanaldi osoaren kutsu erdi poetikoa erdi onirikoa.

Dantzarien gorpuzkera ere izan da esanguratsua planteamendurako: emakumearena irina eta sendoa iruditzen zaigu aldi berean, eta gizonarena Thor jainkoaren tankerakoa izan da bere estatura, gihartasun, bizar eta ile luze horailekin. Argizko paisaia emozionalan izandako pasartearen ostean edertasun handiko oreka ezinezkoak eraiki dituzte elkarrekin, bien gorpuzkak espertze sinestezinetan jarrita eta argi-hodiek markatutako karra-tu batean kokatuta. Dударik gabe, irudi horiek izan dira in-paktu handienekoak, eta amaierako unean bake-sentsazio sakona utzi digute musikaz, argiz eta dantza jasotako paradisu dosiek.